

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2340

*765/2020 EBAZPENA, maiatzaren 21ekoa, Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuan Administrazioiko talde-buru (KSU) lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia egiten den.*

Bilbao-Basurtoko ESiko Administrazioiko talde-buruaren (KSU) lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, honako oinarrien arabera

#### OINARRIAK

1.– Parte hartzeko betekizunak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako langile finkoa izatea (estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratuduna) eta lanpostua jabetzan edukitzea C2/D2 talde profesionalean.

b) C2/D2 lanbide-taldeko titulazioa edukitzea.

c) Bi urteko lan-esperientzia, gutxienez, edukitzea C2/D2 lanbide-taldeetan.

d) Hizkuntza eskakizuna: 2. hizkuntza-eskakizuna.

e) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren eta Osakidetzako Euskara Planaren ezarritako gaineko betebeharrak betetzea.

2.– Aintzat hartuko diren merezimenduak.

E-Osabide aplikazio informatikoak erabiltzen jakitea.

Prestakuntza edota esperientzia SAPEko Gizabide-Giza Baliabideak aplikazioan.

Esperientzia izatea kudeaketa administratiboaren arloan (Harrerak, Zerbitzu Zentralak, Proba Osagarriak, Ospitalizazioko Solairuak, Kanpo Kontsultak, eta Ospitaleko eta Ospitalez kanpoko beste Unitate Administratibo batzuk).

Esperientzia edota prestakuntza izatea taldeak antolatzen eta kudeatzen.

Lan-taldeetan parte hartu izana.

Gaitasuna izatea lidergoan eta komunikazio-tekniketan.

Datuen babesaren gaineko ezagutza.

Ofimatikako ezagutzak: Word, Excel, Aceso, Power Point, Outlook.

Lanpostu hau betetzeko interesgarria izan daitekeen edo balioa erants dezakeen edozein merezimendu aurkeztu ahalko da.

3.– Euskararen ezagutza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.

4.– Eskararak egiteko epea eta aurkezteko modua.

Interesdunek Osakidetza Bilbaitoko ESIko Pertsonaleko Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak (Montevideo etorbidea 18, Bilbao, 48013 posta-kodea). Horretarako 15 egun balioduneko epea izango dute, Ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aurkeztu ahal izango dira, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. Artikuluan ezarritako eran.

Interesdunek Bilbaitoko ESIko Pertsonaleko Zuzendaritzara bidali behar dute eskabidea (Montevideo etorbidea 18, Bilbao, 48013 posta-kodea), beren datu pertsonal guztiak eta curriculum vitae dokumentatuarekin batera. Dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.

Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.

Baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.

Baloratu beharreko merezimendu guztien fotokopia konpultsatua.

CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan ageri den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskaeran.

5.– Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak baloratzeko, eta izangaiari horren berri emango zaie.

Batzordeak, eskabideak baloratu ondoren, eginbide osagarriak gauzatzea erabaki dezake; eta izangaiari horren berri emango die.

Izangaien balorazioa egindakoa, eta berau kontuan hartuta, dagokion izendapena egiteko proposamena aurkeztuko da. Lanpostua hutsik uztea proposa dezake epaimahaiak, betiere aurreko txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiak betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak eta gauzatutako eginbide osagarriak (halakorik balego) zerrendatuko dira, eta lanpostua eurretako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango.

#### 6.– Hautaketa prozedura.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, deialdia EHAAn argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ez eta eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

#### 7.– Prozedura amaitzeko Ebazpena.

Honen bidez hasitako prozedurari amaiera emango zaio (lanpostua esleitzea edo betetzeke uztea), Osakidetzako Bilbao-Basurtoko ESIko zuzendari gerentearen ebazpen bidez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu EHAAn argitaratzen den egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

#### 8.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiarri. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2020ko maiatzaren 21a.

Bilbao-Basurtoko ESIko zuzendari gerentea.

EE (ekainaren 20ko 1556/2017 Ebazpena).

Pertsonaleko zuzendaria,  
AMAYA DE ALLENDE ACHALANDABASO.